

9. KOSTU EGITURA

Gure enpresa aurrera eramateko zenbait kostu izango ditugu:

Kostu finkoak izango dira gure kostu nagusienak **soldata, ura, argindarra, telefonoa eta internet konexioa**. Horrez gain, garaje bat erabiliko dugu lanerako **lokal** modura, baina lankide batena denez, ez dugu hori zertan ordaindu behar. Gainera ordenaigailuak ere bakoitzak berea ekarriko du momentuz.

Hilabeteroko kostuak hauek izango direla estimatzen dugu:

- Ura eta argindarra: 80€
- Internet konexioa eta telefonoa: 40€.
- Soladatak: Gu izango garenez lankideak hasiera batean ez dugu zehaztuko soldata finkorik. Diru sarrera eta irabazien arabera banatuko dugu soldata.

Kostu aldakorrei dagokienean, **informazio-baliabideak**, hau da, plataforman zintzilikatuko dugun informazioaren jabea ordainduko dieguna izango da mota honetako gure kostu nagusia eta hori, duten informazio-bolumenaren arabera izango da.

